

Ikastolako Ohiko Batzar Orokorra

2024ko Ohiko Batzar Orokorra, azaroaren 28an, OSTEGUNEZ, arratsaldeko 17:00etan (lehen deialdian), 17:30ean (bigarren deialdia) eta hala badagokio, 18:00etan (hirugarren deialdian) Agerialde eraikineko 3. solairuan (Alperroburu, 5) egingo dela jakinarazten dizuegu.

Batzarreko dokumentazioa bazkide diren familia eta ikastolako langileei emailez helaraziko zaizue hurrengo egunetan. Hona hemen [deialdia](#).

Antolaketa egokia egin ahal izateko, bertaratu behar duenak, mesedez, [galdetegi hau](#) bete azaroaren 26a baino lehen.



Bazkidetza

Udarregi Ikastola kooperatibako urteko bazkidetza-kuota azaroko erreziobarekin batera kobratuko dela jakinarazten dugu. Bazkidetza familiako da eta 12,02 euro ordaintzen dira.



Mugikorra bai? Ez? Noiz? Familientzat tailerra

Tailer formatua izango duen saioa izango da. Miren Rosek gidatuko du saioa. **Guraso eta seme-alabak** elkartu eta helburua aurrenengo mugikorraren erosketari atzeratzeko argudioetan janztea izango da.

Heldu eta txikien artean elkarrizketa sustatuko da, elkarri entzungo diote eta tailerretik indartuta eta ahaldunduta irtetea izango da helburua;



lasaitasunez hitz egiteko giroa sortuta, dituzten bizipen, zalantzak eta kezak elkarbanatuko dituzte eta elkar elikatuko dute.

Tailer formatua izanik, lagun-kopuru gehieneko bat egongo da: 40 pertsona (guraso eta haurrak barne). Lehentasuna izango dute DBHko familiek.

Data: Azaroaren 18a, astelehena, arratsaldeko 17:00etan

Lekua: Agerialdeko 3. solairuan.

Norentzat: LH5, LH6 eta DBH1eko familientzat.

Eskola-kiroleko istripu-aseguru berria

Orain arte eskola kirolean haur batek istripu bat bazuen, Osakidetzara joan behar zuen, baina orain Aldundiak seguru berri bat jarri du martxan eta hauek dira egin beharreko pausoak haurrak asistentzia beharko balu:

1. ASESMED-era deitu behar da 926406441

2. Bertan gertuko **itundutako zentrorra** bideratuko dute eta bertara joan beharko du zaurituak.

3. ASESMED-ek **poliza zenbakia** eskatuko balu honako

hau da: **20230620326992** (ikaslearen AITA/AMA/TUTOREAK beste aseguru pribatu bat badu, bertara joan beharko da)

4. Behin bidalitako zentrotik itzultzean, **eskola-kiroleko koordinatzailearekin harremanetan jarri** (eskolakirola@udarregi.eus)

*Gai honi buruz edozein zalantza baduzue bidali eskolakirola@udarregi.eus helbidera.



Iparraldeko ikastolen egutegiak salgai

Iparraldeko ikastolek urtero egin ohi duten bezala, 2025eko egutegia (**Seaska**) salgai jarri dute. Erosi nahi izanez gero, **Ikastolako idazkaritzan** egongo dira **salgai**. Bakoitzaren salneurria, **4 €**.



HAUR HEZKUNTZA

Zorriak

HH 3ko ikasle batzuegan zorriak sumatu ditugu.

Norberak bere seme/alabarekin egoera horretan ohikoak diren higiene neurriak hartzea eskatu nahi dizuegu.

NEURRI HORIEK ERAGINKORRAGOAK IZAN DAITEZEN SAIATU DENOK ASTEBURU HONETAN EGITEN TRATAMENDUA



Paperezko poltsa

Gogorarazi nahi dizuegu zuen seme-alabek hiruhilabete honetan egindako lanak etxera eramateko paperezko poltsa bana ekarri behar dutela.



LEHEN HEZKUNTZA

Ikusmen-osasuna

Azaroaren 20an eta 21ean LH 1eko ikasleei ikusmen-osasuna prebenitzeko froga batzuk pasatzera etorriko da Teresa Olabarria optometrista.



6. mailako ikasleen irteeren kobrantza

Azaroaren 22an, 6. mailako ikasleek 1. hiruhilekoan egindako irteeragatik, **20,45 €**-ko kobrantza egingo da. Kostua honela zehazten da:

- Zumaiara tren: 4,10 €
- Fliysch-etara sarrera: 9,25 €
- Adarrara (Besabi) autobusa: 7,10 €



Irakurketa-solasaldia

Azaroaren 27an, asteazkenarekin, 18:00etan, IRAKURKETA-SOLASALDIA, **8 eta 11** urte bitarteko haurrentzat.

Mintzagai izango dugun liburua: Leire Bilbaoren **XOMORROPOEMAK**.

Saioan parte hartu nahi duen edonorentzat, jada **eskuragarri ditugu liburuak** Sutegi Udal Liburutegian.

[Horma-irudia](#)



DBH

1. Hiruhilekoaren kompetentzia-astea

Kompetentzia astea azaroaren 15etik 20ra bitartean izango da.

EKI
PROIEKTUA
Kompetentziak



DBH 1eko ikasturte amaierako irteera

Datorren astean, maiatzaren 15 eta 16 egunetan egingo dugun DBH 1. mailako KURTZO AMAIERAKO IRTEERAREN lehen KOBARRANTZA egingo da kontu korrante bidez. Zenbatekoa **30 €** izango da.



“Zer egin menpekotasunaren aurrean (alkohola, mugikorrak, jokoa...) guraso bezala?”

Azaroaren 18an, astelehena, DBHko guraso zaretenontzat, aipatutako gai honen inguruan hitz egingo duen aditu bat izango dugu gure artean, IZAR ARREGI. Gaia interesatzen zaizuen guztiak gonbidatuta zaudete. Guraso bezala dituzuen kezkak aditu bati esposatzeko/galdetzeko... aukera izango duzue bertan.

Data: Azaroak 18, astelehena

Ordua: 17:00etatik 19:00etara (gutxi gora-behera)

Lekua: DBHko eraikina

